

Kultura Etxeak hainbat jarduera antolatuko ditu Ignacio Aldecoaren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrenean

Hainbat mahai inguruk, irakurketa dramatizatuk, antzezlan batek eta proiektio batek garrantzia emango diote Gasteizko egilerik garrantzitsuenetako bati

Gasteiz, 2019ko azaroaren 11.- Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak, Kultura Sailaren bidez, jarduera multzo bat antolatu du Ignacio Aldecoaren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrenean. Esan behar da haren izenak Floridako parkeko erakinari ere ematen diola izena, 2001etik.

Prensaurrekoan aurkeztu dute Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko diputatuak, Teatro Paraísoko Pilar Lópezek eta Landazuri Elkarteko Pedro Ignacio Bilbaok, zeinek antolamendu lanetan parte hartu baitute.

Guztira, sei jarduera izango dira; azaroaren 13an hasi eta abenduaren 12an bukatuko dira, eta haien bidez hau lortu nahi da, Val-en hitzetan: “gure egile emankorrenetatik bat omentzea, azpimarratu behar baita ez bakarrik haren alderdi zinematografikoa, ezpada haren lan guztia, eta batez ere haren kontakizun laburrak”.

Aldecoa

Ignacio Aldecoa Isasi (Gasteiz, 1925 uztailaren 24a – Madril, 1969ko azaroaren 15a) narrazio ekoizpen handi eta biziko idazlea izan zen. Filosofia eta letrak ikasi zuen Salamanca eta Madrilgo unibertsitateetan. Han, Sánchez Ferlosio, Martín Gaité, Fernández Santos eta berrogeita hamarreko hamarkadako narrazio taldea osatuko zuten beste gazte batzuen lagun egin zen.

Nahiz eta poeta gisa hasi zuen bere bidea, laster hasi zen ipuina lantzen –genero horretan maisua izan zen, zalantza gabe–; bai eta eleberria ere. Gazterik hil zen, 44 urte zituela, baina gazte izateak ez zion kendu garrantzirik, Espainiako 50eko hamarkadako narrazioaren errealismo berriaren testuinguruan.

EGITARUAU

- **Azaroaren 13a:** “Neurria eta sotilezia”: ipuina, egun. Parte hartzaileak: Bernardo Atxaga, Arantxa Iturbe eta Ana Malagón ; koordinatzailea: Iban Zaldua, 19:30
- **Azaroaren 14a:** “Medida y sutileza”: ipuina, egun. Parte hartzaileak: Carlos Castán, Elvira Navarro eta Clara Obligado ; koordinatzailea: Iban Zaldua, 20:00
- **Azaroaren 15a:** Ignacio Aldecoa: “El hombre y el escritor” (mahai ingurua). Parte hartzaileak: Susana Aldecoa eta Juan Cruz Ruiz, 19:30
- **Azaroaren 16a:** “CUENTO DE INFANCIA-IGNACIO ALDECOA”. Tito Muruak idatzi du eta hark errexitatuko du. Teatro Paraísoren dramatizazioa
- Lekua: Abetxukuko Kristoren ermita, 18:00
- **Azaroaren 20a:** “Los pájaros de Baden-Baden” proiektzioa, 19:30
- **Abenduaren 12a:** irakurketa dramatizatuak. José Rafael Ruiz de Azua eta Javier Larreina